

HAUR HEZKUNTZA 3-5 ZIKLOA

ARAUTEGIA

Jarraian aurkezten dugun arautegia, Zubi Zaharra Ikastolako Haur Hezkuntzaren 3-5 zikloaren funtzionamendu on baterako arautegia da.

- Sarrera eta irteerak malguak izango dira.
- Umeak hartzerakoan puntualtasuna eskatzen da.
- Egunero klasera etortzea onuragarria da umearentzat beraz, gaixorik ez badago, egunero ikastolara ekartzea komenigarria da.
- Ikaslea ikastetxetik ateratzeko (medikuarenera eramateko...) alde zuzenetik abisatu behar da. Ikaslea jasoko duen arduradunak dagokion gelaraino joan behar izango du. Puntualtasuna eskatzen da.
- Ikasleen ordutegi lektiboak irauten duen bitartean patioan ez geratzea eskatzen dugu.
- Ikasleren bat gaixorik badago, ikastolara ezin izango da etorri.
- Etxetik jostailuak ez ekartzea komeni da, atxikimendu objektuak izan ezik.
- Ume batzuek elikagai batzuei alergia edo intolerantzia dietenez jolastokian dauden bitartean janaririk edo goxokirik ez ematea eskatzen dugu.
- Umeak arropa erosoarekin etorriko dira, txandalaren erabilpena gomendatzen dugu.

SARRERAK ETA IRTEERAK HHKO 2. ZIKLOAN

HHko 2. zikloko umeak igoko dira gelaraino beti haien gurasoekin lagunduta, eraikin berriko atetik (pilotalekuaren ondoan dagoena) sartuko dira eta pasatuko dira beti LHko ikasleak sartu eta gero. Andereñoa gelan egongo da umeen zain, 9:00etatik aurrera.

- **GOIZEKO SARRERA:**
Goizeko sarrera irekia izango da HHko bigarren ziklo osoan, gurasoek ekarri ahal izango dituzte seme-alabak **09:00etatik 09:45ak arte**.
Autobuseko umeak autobuseko arduradunarekin igoko dira 09:00etan LHko ikasleak pasatu eta gero.
Goizago etortzen diren umeak haien zaintzaren ardura duenak eramango ditu gelaraino LHko ikasleak pasatu eta gero.

- **GOIZEKO IRTEERA:**
Irteera ere **irekia** izango da, gurasoek 12:10etik aurrera, jolastokian dauden bitartean, hartu ahal izango dituzte seme-alabak, guraso bakoitza dagokion andereñoari hurbilduko zaio esateko umea eramaten duela honek joaten diren ikasleen kontrola era egokian eraman ahal izateko. 12:50ean andereñoek sartuko dituzte geratzen diren umeak pilotalekura eta han kokatuko dituzte gurasoei kontrolpean emateko moduan.
Jantokian geratzen diren umeak jantokiko begiraleak 13:00etan hartuko ditu pilotalekuan jantokira eramateko.
- **ARRATSALDEKO SARRERA:**
Arratsaldez etortzea ez da derrigorrezkoa. Etortzen direnak 15:00etatik 15:15 arte igoko dira gelara.
Jantokian geratzen diren umeak haien begiralearekin igoko dira gelaraino. Begiraleak soilik jantokiko umez arduratuko dira.
- **ARRATSALDEKO IRTEERA:**
Arratsaldea oso laburra denez etorri diren ume guztiak batera aterako dira. Andereñoek 16:20an jaitsiko dituzte umeak pilotalekura, han kokatuko dituzte gurasoei kontrolpean emateko moduan.